




# KOMUNEKO ROLLOEKIN EGINIKO ZIZARE FORMAKO LAPITZEROA

- Beharrezko materiala:
  - Sei komuneko rollo.
  - Folioak.
  - Erregela.
  - Arkatza.
  - Errotulagailuak.
  - Guraizeak.
  - Kola.
  - Bi kartoi zati.




1. Lehendabizi, komuneko rolloak estaltzeko sei folio zati moztuko ditugu. Horretarako:
  - a. Komuneko rolloen luzera neurtuko dugu erregelaz baliaturik.
  - b. Neurtu dugun luzerari dagokion folio zatia moztuko dugu.
  - c. Folio zatia komuneko rolloaren inguruan jarriko dugu perimetro guztia estali arte, eta ondoren moztu egingo dugu.





2. Ondoren, kolore ezberdinetako errotulagailuekin, moztu ditugun folio zatiak margotuko ditugu. Eskulana egiten ari garen mahaia ez zikintzeko, folio zatia paper baten gainean margotzea gomendatzen dugu.



3. Jada folio zati guztiak margotu ditugunean, folio zatiei kola eman eta zati bakoitza dagokion komuneko rolloaren inguruan itsatsiko dugu.






4. Jarraian, komuneko rolloak zizare forma osatuz kartoi zati baten gainean jarri eta zizare silueta margotuko dugu arkatzarekin.




a. Kartoi zatian margoturiko silueta moztu egingo dugu.

b. Zizare silueta folio baten gainean jarri eta arkatzez markatuko dugu, jarraian folioa dagokion formarekin moztu ahal izateko.



- c. Moztutako folioari kola eman ondoren, kartoizko siluetaren gainean itsatsiko dugu.





5. Folioz estaliriko komuneko rollo guztiei mutur batean kola eman ostean, zizare siluetadun kartoi zati gainean itsatiko ditugu:




6. Amaitzeko, komuneko rolloz osatutako zizare gorputzari burua egitea falta zaigu. Horretarako:
- a. Lehenengo burua egingo dugu ondorengo prozedura jarraituz:

- i. Erabili ez dugun kartoi zatian, zizarearen buruaren silueta margotu eta moztuko dugu. Kontuan izan behar dugu, zizarearen buruaren luzeerak komuneko rolloena baino handiagoa izan beharko duela.



- ii. Zizare buruaren silueta folio baten gainean jarri eta arkatzez markatuko dugu, jarraian folioa dagokion formarekin moztu eta margotu ahal izateko.




- iii. Moztutako folioari kola eman ondoren, kartoizko siluetaren gainean itsatsiko dugu.

b. Jarrain, buruari antenak itsatsiko dizkiogu. Horretarako:

- i. Kartoi zatian bi antenen siluetak margotuko ditugu.




- ii. Antenen silueta moztu ostean, kartoizko antenen alde bat errotulagailuz margotu eta zizarearen buruaren atzekaldeari margotu gabeko aldetik itsatsiko dizkiogu.




c. Ondoren, zizarearen buruari begiak eta ahoa itsatsiko dizkiogu.

Horretarako:

i. Folio batean bi begiak eta ahoa margotuko ditugu.



ii. Begiak eta ahoa moztuko ditugu eta zizarearen buruari itsatsiko dizkiogu.



d. Azkenik, zizarearen burua lehengo komuneko rolloari itsatsiko diogu gure lana amaitutzat emanik:

